Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Julian Beunza Illarregi

Lantz, Nafarroa (1927)



Aurkibidea

Biografia



Aita Lantzekoa bertakoa eta ama Aritzukoa zituen. Artzaina, larogei ardiko artaldea gobernatzen zuen oraindik 2010ean elkarrizketa egin zitzaionean. Ezkongabea. Bederatzi anai-arrebatatik gazteena. Bere etxeak ez omen du azken ehun urteetan aldaketarik izan. Bera da, dirudienez, Lantzeko euskaldun zahar bakarra. Harrigarri samarra, kontuan izanda inguruko herrietan euskaldun dezente dela oraindik. Erraz samar mintzo da euskaraz. Esaten duenez, gurasoek euskaraz egiten zuten elkarrekin, seme-alabek ulertzerik nahi ez zutenean, baina berak adimena zorroztu eta ikasi egin zuen. Koldo Artolak 1986an egindako elkarrizketan bere anaia Bonifazio ere egon zen.

Zintak

LNT-001

- **Proiektua**: Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Data**: 2010-08-09
- **Iraupena**: 38 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

LNT-002

- **Proiektua**: Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1986-01-01
- **Iraupena**: 1 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkartea

Pasarteak

1. Gurasoek euskaraz, seme-alabek ez ulertzeko

- **Erref**: LNT-001/002
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:02:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lantzen euskara galdu da ez dutelako erabili izan. Julianen gurasoek euskaraz egiten zuten elkarrekin seme-alabek ez ulertzea nahi zutenean. Horrela ikasi zuen berak. Aita etxekoa eta ama Aritzukoa.

Transkripzioa
- Hori pasten da... pues, hemengo euskera galdu deiagon zergatik ez da... ez gaude usetuek. Hemen berian, itxe hontan berian, aite ta amak euskaldunek. Beren artian... ta guk, badakizu nola daukegu... nola ikasi giñuen?
- Nola?
- Aite ta ama beren artian, nahi ez zutelaik guk yartzia, orduan iten zuten euskera.
- Aaa!
- Ta guk hondarreko iyarri!
- Hola ikasi zenduten?
- Nahi ez zutelaik guk jakintzia, orduen euskera.
- Ya, klaro, ta hala ya zuek ikasia. Bai. Eta zure aite ta ama nongoak ziren?
- Aite zen itxekua, itxeko semia, eta nere ama zen sortue Aritzun.

2. Lantz husten ari da

- **Erref**: LNT-001/004
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:03:18. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Lantz galdu egingo omen da, gazteak kanpora joaten direlako lanera. Lehen basoan lan asko egiten zen, trenbideko trabiesak egiten batez ere.

3. Eliz-kantua euskaraz

- **Erref**: LNT-001/005
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:06:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bera txikia zenean ere euskara gutxi egiten zen Lantzen. Bazen etxean liburu bat, "Cancionero vasco". Eliz-liburu bat ere bai. Elizako kantua kantatzen du.

4. Artzaintzan lanean

- **Erref**: LNT-001/006
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:06:46. **Bukatu**: 00:08:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artzaintzara dedikatu da gehienbat Julian. 100-160 ardi inguru izan ditu. Etxetik hurbil ibili izan da.

Transkripzioa
-Eta nola bizi izan zara zu? Ze lan egin duzu?
-Lana? Pues itxeko lanak in. Bai, batzuetan ardiekin beste batzue…
-Zenbat ardi?
-Ba ehunon bat edo bai izeten zien. “Cien”.
-Ehun ardi?
-Bai. Gero ya paratu giñuen gehiago. “Ciento sesenta”, ehun ta hirutan hogei. Ezta? Hala da? Ezta hala?
- Bai, bai.
- “Ciento sesenta”, ehun ta hirutan hogei.
-Ta nun edukitzen ziñuzten, ardiak?
-Pues kubiluan ba, hor badaukegu borda, borda, idukitzeko. Orai hemendik ezta ia ikusten, zergatikan arbolak ez dute uzten, baiño hemen hurbil. Hemen berian. Bai.
-Erran ziguten joan ziñala bordara…
-Nola?
-Atzo erran ziguten, atzo erran ziguten bordara joan ziñela.
-Bai, bai, bai.
-Bi aldiz etorri giñen ta…
-Bai, orai paratu bihar dugu /biagu/ teile…teile...konpondu bihar dugu / biagu/ pixko bat, zergatik itsusiek... itsu…
-Eiten baditu.
-Itsusituta dago, itsusi.
-Bai, `itsusi´ es…“`gotera´, ¿cómo es?”
-Aa, itokiñak, itokiñak.
-Itokiñak…
-Itokiñak ez?
-Hemen bertze izen bat du.
-Aber, guk Bergaran nolan esaten degun…
-Itogiñak… Guk itokiñak.
-Baiña Bergaran... Bergaran…
-Bai, gipuzkoarrak….
-Bai, bai, bai, bai.
-Itokiñak, baiña Bergaran ez dakit nola... ez naiz akordatzen Bergaran... Itokiñak.
-Itsi…, isu…, itsu… (`itusur´ edo esan nahi du, baina ez da gogoratzen)

5. Bederatzi anai-arrebatatik gazteena

- **Erref**: LNT-001/008
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:10:06. **Bukatu**: 00:11:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Familiako kontuak. Bederatzi anai-arreba ziren, baina bi geratzen dira. 27 urteko diferentzia zuten nagusienetik txikienera. Bera, txikiena izan arren, ez da mimatua izan, denek agintzen zioten eta berak obeditu egin behar.

Transkripzioa
-Umeak, seme-alabak badituzu, seme eta alaba?
-Ez, gelditu naiz bakarrik mundu hontan ya. Bai, bai. Bi anai-arreba gaude, bi.
-Anai-arrebak badituzu. Zenbat anai-arreba?
-Bat. Gelditu gara... gu izanak gara... gure aite izan zen, bederatzi ume denak. Bai. Lehenbizikua mutikoa, ta gero sei neskatilla, ta gero bige hondarrekoak ginen mutikoak berriz.
-Orduan zu hondarrekoa?
-Bai, ni hondarrekoa, bai. Eta diferentziakin hogeite zazpi urtekoa.. zaharrena eta ni gazteena.
-Zu gazteena, zu etxeko mimatua?
-Bai halaxe... ez, ez, ez hori, hortan ez du ongi iten jendiak. Al kontrario da.

-Ez? Ez zara etxeko mimatua?
-Ez, ez, ez, neri denak zartakoa eman bihar... guretako... neretako. Neri denek manatu. Ta nik lana in bihar. Zer egin bihar dugu /biagu/?

6. Karabineroengatik galdu omen da euskara

- **Erref**: LNT-001/009
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:11:32. **Bukatu**: 00:13:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Orain gazteek euskara batua ikasten dute, baina bera da Lantzeko euskaldun zahar bakarra. Badu liburu bat aitak egina. "1830, Lantzen egina" jartzen omen du.

Transkripzioa
- Eta orai euskaraz zer? Jende anitzek jolasten duzie Lantzen edo?
- Orai, pues hasi dire ya mutiko batzuk, zergatik eskolan ere erakusten diote... bai, batua.
- Bai, baiño zaharretarik, zu bakarrik?
- A... bai, bai bai.
- Ta txiki ziñela igual denek eginen zuten, herrian jende guztiak euskaraz? Lehenago herri guziak eginen zuela euskaraz.
- A, bai.

- Erderaz batez.
- Bai. “Pues mil ochocientos ... treinta o alguna cosa así, pero ahora [...], dauke fetxa, liburue ttikie [...], nere aitek egiña.
- Zure aitak eginda?
- Bai.
- Euskeraz?
- Bai, bai, hondarreko orrietan erraten du “Lantzen egiña”. Hori... nose... Eztakit seguro zer fetxa, baiño “mil ochocientos treinta o... ahora [no me acuerdo]”. Ia denbora haietan pues dena iñen zuten euskeraz.
- Joe... eta zure ustez zergatik galdu da euskara hemen?
- Pues... erraten zuten, hemen beti izenak dire “karabineroak” ta hoiek denak hondarrrekoak dira pues denak erdaldunek, erdaldunek, erdaldunek erdaldunek, ta haiekin batian...

7. Arrunt maite du euskara. Behiek ere nahiago euskaraz

- **Erref**: LNT-001/011
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:14:43. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Anaiarekin (?) beti egiten du euskaraz. Arrunt maite du euskara. Behiek ere nahiago dute euskaraz. Erdaraz eginez gero, ez omen dute kasurik egiten.

Transkripzioa
-Honekin hitz egin euskaraz?
-Bai, bai; beti hala in degu. Nik honekin hasten balin banaiz, hori, jolas pixko bat iten, beti euskera, gu bien artian.
-Ya, honek jakinen du?
-Bai, neri gustatzen zaide aunitz euskera.
-Bai, e?
-Ez dakit zer [nahi nian]... euskera ongi jakintzia.
-Ba, eskerrak! Maite duzu euskera?
-Maite, arront maite det euskera, arront maite, bai, bai. Behiei ta, behiekin-ta banago, beti euskera iten diet.
-Ulertzen dute behiak?
-Karooo, bai, bai, bai, bai. Nahiago dute behiek ere euskera.
-A bai?
-Bai, baietz. Sartzen diren itxen: “ala, lekure, lekure, segidan!”. Joaten dire [hala], e, segiden. Ta ez zaide /etzaide/ gustetzen erdera, ez du /eztu/ plantik iten.

8. Oso famatua Lantzeko Inauteria

- **Erref**: LNT-001/013
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:17:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Arrunt famatua da Lantzeko Inauteria. Alde guztietatik etortzen da jendea, nahiz eta aspaldian gutxixeago. Tiroa eman eta erre egiten da Miel Otxin, baina ez daki horren esanahia.

Transkripzioa
- Famatuek, arront, arront famatuek egin dire, bai. Iduri du pixkon bat ya ikusie dagolakoz, pues jendea ez da hainbeste jendea etortzen, biño etortzen da, o!, Frantziatik eta Pais Vasco ta dena. Bai, bai, bai, bilbotarrak-eta etortzen dira, bai.
- Eta nola izaten dire Ziripot eta Miel Otxin eta? Hoiek zer dire?
- Nola deitzen diren?
- Bai, zer izaten dire hoiek?
- Pues, ez dakit zer, zer, “qué significación tendrán, no sé, no sé”…
- Eta gero zer egiten da erre Miel Otxin?
- Erre, bai bai, tiro bat, tiro bat edo bire eman ta.
- Zergatik erretzen da? Zergatik?
- Hori [dio] baiño, baiño hala pentsatzen, ez dakite zergatik ite…

9. Tirabirak Lantz eta Olague artean

- **Erref**: LNT-001/017
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:21:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Olague eta Lantzen artean tirabira egoten zen. Lantzekoek, Olagueko lurretan sartuz gero, isuna ordaindu behar zuten, eta alderantziz.

10. Aritzun Lantzen baino euskara gehiago

- **Erref**: LNT-001/019
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:23:42. **Bukatu**: 00:24:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Ama Aritzukoa zuen. Lantzen baino euskara gehiago egiten zen. Olaguen guardia zibilak bizi zirenez, errazago galtzen zen euskara.

11. Lehenagoko bizimodua nahiago

- **Erref**: LNT-001/021
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:24:30. **Bukatu**: 00:25:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gehiago gustatzen zaio lehengo bizimodua oraingoa baino. Lehen konfiantza handiagoa zegoen elkarrekin eta elkarri errazago laguntzen zitzaion.

Transkripzioa
-Neri gehiago gustatzen zaizkide lehenagoko bizimodue.
-Bai?
-Bai, jendea ta arront ta gehiago, arront...
-Jatorragoa?
-Jatorragoa zen, bai, oraingoa baiño.
-Eskuzabalagoa...
- Bai, orai konfiantza gutiago daukegu geren etxean. Konpontzen gara ongi baiño, bai. Lehenago, ogie falta baldin bazen etxean, segidan ez zen perezik joateko bertze baten etxera. Orai...
-Orain?
-Orai ez...
-Konfidantzarik ez?
-Ez da lehenagoko bezala, ez, ta Gipuzkoan ere hala izinen de.
-Bai.

12. Saioa mendiraino iaz arte

- **Erref**: LNT-001/023
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:27:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Orain arte ondo ibili da, baina hankekin arazoak ditu. Iaz arte Saioa mendiraino joaten zen ederki asko.

Transkripzioa
- Hankak, hankak! Orai artio bai. Joan den urtean artio zein majo egoten nitzen ni. Joaten nitzen oihanera, Saioan gainean paratu, pasatu denbora, hori, egun guzie hor, torri itxera ta, hori, uatzera joan ta sasoia onekin. Bai!
- Saioa non da? Saioa mendia?
- Pues, ez da ikusten zergatik oihan hoiek tapatuek [...], bai. Saioa dago, pues, Ultzaman.
- Bai.
- Hori, Baztan ta gero ba... “la parte de allí... Erro o así”.

13. "Katapurtxintxe bezala" orain arte

- **Erref**: LNT-001/025
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:29:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Orain arte "Katapurtxintxe bezala" egon da osasunez (urtxintxa bezala), baina aspaldi honetan ziztakoak sentitzen ditu belaunetan.

14. Burdindogiko Santo Kristoaren ermitara

- **Erref**: LNT-001/027
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:29:55. **Bukatu**: 00:30:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromeria egiten da Iragi-Eugi partean dagoen "Santo Cristo de Burdindogi" ermitan; bera urtero joaten da. Baztandarrak ere etortzen dira.

15. Lau herritar hil gerratean

- **Erref**: LNT-001/030
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:32:30. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Herria hustu egin zen gerra denboran. Herriko bi mutil hil ziren Bilbo aldean, eta beste bi pertsona ere bai, bat apaiza, Katalunia aldean.

Transkripzioa
- Gelditu zen herrie hutsik.
- Hutsik e?
- Bai. Bai, bai, mutillek joan ziren gerrara, ta badire hemen, bide familie, bi familie, bi mutil hillek dauketenak. Bide batian. Bai, ba [Barbaenekuak]... ziren... bide joan ziren ta bide. Bilbaon, Cinturón de Bilbao, hil ziaten. Bai. Gero bertzia Marcos Goñi ta Iginio Goñi, hoiek ere bi anai. Hoiek, berriz... Marcos zen apeza, Barcelonako... Leridako... Leridan. Lerida, Barcelona, hortxe egoten zen. Joan ziren, hartu zion gerra denboran han, ta akabo, ez ziren gehiago agertu, e.
- Joe...
- Halaxe.

16. Urteberri eguneko kanta

- **Erref**: LNT-002/001
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Urteberri egunean abesten zuten kanta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com